



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 16-2. solalrua - 31780 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-636005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU LANAK ESLEITZEKO

DEIALDIA (OSTATUA ETA SARRERAK)

2022ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak bi pertsona kontratatu nahi ditu igerilekuen 2022ko denboraldirako, ostatuaz eta sarrerataz arduratzeko.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- 16 urte beteak izatea.
- Euskara menperatzea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

- Curriculumama
- Lan eskarmentua
- Zerbitzua nola emanen den azaltzen duen txostena

4.- **Zerbitzuaren hilabeteko lansaria** hauxe izanen da: **1.068,67 euro + eguneroko sarrerak + ostatuko irabaziak, eta bi langileen artean banatuko da.**

Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak egingen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak **100,00 euroko fidantza** jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 13tik aitzin uko egiten bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- Hasiera: 2022ko ekainaren 24an (igerilekuak irekiko dira ekainaren 25ean).
- Bukaera: 2022ko abuztuaren 29an (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 28an).

6.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne.

- Instalazioen barneko mantenimendu eta garbiketari dagokionez, ostatuaz arduratzen diren pertsonak egunero guttienez bi aldiz garbitu beharko dituzte komunak, aldagelak, etab.

Bertzeak bertze, lan hauek egin beharko dira: igerilekuko ontziak hustu eta garbitu, ostatu ingurua garbitu, mahaiak eta bankuak dauden ingurua garbitu, eta, oro har, ongi funtzionatzeko behar den guztia egin.

- Udal igerilekuak ireki aitzinetik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
- Igerilekuetara sartzeko sarreren kontrola eraman, igerilekuen erabilera-arautegiak dioena kontuan harturik.
- Aldagelen zerbitzuaz arduratzea.
- Tabernako instalazioen kudeaketa. Horretatik sor daitezkeen etekin edo galerak kontratatuen esku izanen dira.

Oro har, eskuz egin behar ez diren produktuak saldu ahal izanen dira (edariak, izozkiak, snack-ak, litxarrerriak, etab.). Eskuz egitea eskatzen duten bertzelako zerbitzuak eskaintzen badira (pintxoak, ogitartekoak, etab.), esleipendunak elikagaiak manipulatzeko behar den baimena izan beharko du.

- Azaldu beharreko edozein iradokizun edo berrikuntza Udalari jakinaraziko zaio. Udalak, bidezko iruditzen zaion maiztasunarekin, zerbitzua nola ematen den ikuskatuko du.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Elikagaien higieneari buruzko neurriak hartuko dira zerbitzua behar den bezala ematearren.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak ebatziko du.

Etxalarren, 2022ko maiatzaren 5ean.

Alkatea,

